



MEMORIA HISTORIKOAREN BERRESKURAPENA EGIA EZAGUTZEKO, JUSTIZIA ETA BIKTIMEN ERREPARAZIO ETA EZ ERREPIKAPEN ESKUBIDERA SARBIDE BEZALA, EUSKAL HERRIKO ETA KOLONBIAKO BAKE PROZESUAREN BARRUAN.

Emigrad@s sin Fronteras-ek, Eusko Jaurlaritzako Bakea eta Bizikidetzeta idazkaritza eta Gernika-Lumoko udalarekin batera, Euskal Herriko eta Kolonbiako Gatazakaren testuinguruaren barruan memoria historikoaren berreskuperako jardunaldia antolatuko du.

MEMORIA HISTORIKOAREN ESPERIENTZIAK: KOLONBIA-EUSKAL HERRIA jardunaldia, abenduaren 15ean, osteguna, egingo da Gogora aretoan, Bilbo (María Díaz de Haro, 3) goizeko 9:30etatik arratsaldeko 19:00ak arte eta Gernika-Lumon abenduaren 16an; goizeko 10:00etatik 13:00etara.

Jardunaldiak hurrengo helburua du.

- Elkarriketa lagundu, Kolonbia eta Euskal Herriko antolakunde, gizarte mugimendu eta erakunde ezberdinen arteko esperientzien elkartrukaketa memoria historikoaren berreskurapena egia ezagutzeko, justizia eta biktimen erreparazio eta ez errepikapen prozesuak bake justu, iraunkor, demokratizatzaile eta elkaradiskidetzeari begira. Genero eta eskubideen ikuspuntutik

Programa lau arlotan dago banatuta

- Biktimak, erbesteratuak kolonbiako eta euskal gatazkan, egia, justizia, erreparazio eta ez errepikapenaren markoan.
- Memoria Historikoaren berreskurapen prozesuak marko juridiko eta instituzionalean.
- Emakumeak, arrazalizatutako kolektiboak, LGTB kolektiboak, memoriaren berreskurapen prozesuan.
- Bertako instituzio publiko eta gizarte zibileko antolakundeen esperientzia Memoriaren berreskuratze, Egia, Justizia eta Konpontze prozesuetan

Mahai bakoitzean zuzenbide penalean hiru aditu gutxienez arituko dira gai honetan esperientzia eta zilegitasuna dutenak, bestak beste: Olga Betancourt Kolonbiako Desplazatuak Elkarte Nazionaletik, Jorge Freytter Kolonbiako Estatuarengatik jazarri eta erbesteraturikoen kontituziogilearen ordezkari, Felipe Gómez Pedro Arrupe Giza Eskubideen institutotik, Monika Hernando Eusko Jaurlaritzako Bakea eta Elkarbizitza idazkaritza, Emilio Silva Espainiako Memoria Historikoaren Berreskurapenerako Elkartetik; Edna Martínez: Marcha Patrioticako aktibista afrokolonbiarra, María Esther Gallego Emakumeen Bake Bidetik; Amparo Villar Aldarte Elkarte eta Julia Monge Intxorta 1937 Kultur Elkartetik.

Memoria Historikoaren gaineko jardunaldia, memoria historikoaren berreskurapenean jarduten duten erakunde, instituzio politikari eta tekniko, Euskal Herrian bizi diren kolonbiar, kolonbiarekiko elkartasun elkarteei, Kolonbian lan egiten duten Euskal GGKE-ei eta akademiako ikerlari eta ikasle ezbernei dago zuzendua.

Etortzeko interesik baduzu deitu astelehenetik- ostiralera 9:00etatik 13:00etara 946-52-3536 telefonora edo idatzi zure izen abizenak adieraziz emigradassinfronteras@gmail.com